

Gure negozioaren funtsezko jarduera teknologikoa da, hau da, aplikazio baten eskaintzan datza. Aplikazio honetan zerbitzu bat eskaintzen da herrietako dendei: haien negozioaren publizitatea egiten da. Kuota baten truke haien negozioa gure mapan agertuko da, bere ezaugarriekin, eskaintzen dituzten produktuak, dituzten promozioak, etb. Gainera herri berdineko denda ezberdinen arteko elkarlaguntza sustatuko dugu hainbat proiektuen bitartez.

Gure enpresak burutuko dituen beste jarduera batzuk hauek dira: enprekin kontaktuan jartzea eta hau mantentzea, aplikazioaren mantenua, antolakuntza ekintzak, marketing estrategiak diseinatzea, aplikazioaren erabiltzaileen arazo eta iradokizunei eratzutea eta hauekin aldaketak proposatzea, etb.